AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

1066

AGINDUA, 2014ko otsailaren 26koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, M.ª Isabel Bengoechea Raba andrea Herri Administrazio eta Justizia Sailaren Justizia Zuzendaritzako goi-kargudun baten idazkari kargutik (kodea: 520010; dotazioa: 38) kentzea xedatzen duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 50.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, eta lege horrek ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– M.ª Isabel Bengoechea Raba andrea Herri Administrazio eta Justizia Sailaren Justizia Zuzendaritzako goi-kargudun baten idazkari kargutik (kodea: 520010; dotazioa: 38; lanpostu-mailako osagarria: 18) kentzea, Administrazio honetako beste lanpostu batean jardun dezan, eta eskerrak ematen zaizkio egindako lanarengatik.

Bigarrena.– Lanpostutik kentze honek 2014ko martxoaren 10etik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke agindua eman duen organoari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 26a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.